

Deuseztapen eskubidea

Zertan datza?

Herritarrok eskubidea daukagu edozein fitxategitako arduradunari eskatzeko gure datu pertsonalak deusezta ditzala honakoetan:

- Datuak helburu baterako jaso ziren, eta helburu hori betetzeko jadanik beharrezkoak edo egokiak ez direnean,
- Datuak helburu batzuetarako jaso ziren, eta helburu horiek betetzeko beharrezko epea iraganda dagoenean

Horiek gorabehera, datu pertsonalak gorde egin beharko dira xedapen aplikagarrietan aurreikusitako epeetan zehar edo, hala badagokio, tratamenduaren arduraduna den pertsona edo entitatearen eta interesdunaren arteko kontratu-loturetan.

Aplikatu beharreko araudia

- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, [16. artikulua](#)
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, [8. artikulua](#)
- [308/2005 Dekretua](#), urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena, 9. artikulua
- [1332/94 Errege Dekretua](#) (pdf, 23 kB), 15. eta 16. artikulua

Administrazio edo erakunde publiko baten aurrean eskubidea erabiltzea

Deuseztapen eskubidea erabiltzeko baldintzak

- Deuseztapen eskubidea erabiltzea nahitaez norberak egin beharrekoa da eta horregatik, interesdunek zuzenean gauzatu beharrekoa, fitxategien arduradun/titular bakoitzaren aurrean.
- Fitxategi baten dauden datu pertsonalak deuseztatzeko eskabidea, datuak zuzentzeko edo osatzeko asmoz zure datuak tratatzeko aginpidea duen Administrazioaren fitxategiaren arduradunaren aurrean egiten da.
- Fitxategiaren arduradunaren helbidea zein den ez badakizu, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo dezakezu eta informazio hori eskatu 945 016230 telefonoan, avpd.@avpd.es posta elektronikoa, edo www.avpd.es web orriaren bitartez
- Epeak
- Arduradunak eskaeragileari erantzun egin beharko dio, eskabidea jasotzen den egunetik gehienez ere 10 eguneko epean
- Epe horretan deuseztapen eskabideari berariaz erantzun ezean, eskaera ukatutzat eman beharko da.
- Deuseztapen eskubidearen eskabidea onetsi egiten bada, arduradunak deuseztatu egin beharko ditu datuak, eskabidea jasotzen

den egunetik hamar eguneko epean. Deuseztatzeak esan nahi du datuak fisikoki ezabatuko direla, hala egitea erabat ezinezkoa ez bada, behintzat; datuak ezin badira ezabatu, arduradunak blokeatu egingo ditu datuak, horien erabilera eta tratamendua ekiditearren.

- Datuak deuseztatzea doakoa da.
- Datuak deuseztatzea erabaki ondoren, datuak tratatzen sor litezkeen erantzukizunei erantzutearren, harik eta erantzukizun horiek preskribitu arte Administrazio Publiko, Epaille eta Epaitegiaren eskura egoteko baino ez dira gordeko datuok. Epe hori iragandakoan, deuseztatu egin beharko dira datuak.

Nombre de archivo: Documento1
Directorio:
Plantilla: C:\Documents and Settings\EJ00873T\Datos de programa\Microsoft\Plantillas\Normal.dot
Título:
Asunto:
Autor: EJ00873T
Palabras clave:
Comentarios:
Fecha de creación: 30/03/2010 10:47:00
Cambio número: 1
Guardado el:
Guardado por:
Tiempo de edición: 2 minutos
Impreso el: 30/03/2010 10:50:00
Última impresión completa
Número de páginas: 2
Número de palabras: 547 (aprox.)
Número de caracteres: 3.011 (aprox.)